

## ZUMAIAN


### Gazteek eta Udalak uztartu beharra dute jaiak antolatzeke

**S**an Pedro jaiak Zumaian ez dute, jakina, San Telmo jaiak duten sona eta arrakasta, herritarren partehartzea ez da hainbestekoa eta Udalak antolaturiko ekintzak dira nagusi jaietan, baina asteburu honetan eta hurrengoan izango da aukerarik ondo pasatzeko eta dibertitzeko, bakoitzak umore puntta bat jarri eta jaigiroan alai parte har baleza.

#### ZUMAIAN

Zumaiako San Pedro jaiak ez dute nahi adinako arrakastarik eta entzuterik; San Telmo jaien ondoan deus gutxi direla diote, batez ere gazteek. Alde batetik ez dute Santelmoek duten tradiziozko eta bestetik uda partean ospatzen direnez kanpoko jende gehiago etortzen da herrira eta jaiak izaera herritarra galtzen dute pixka bat. Zenbait gazteekin hitzegin dugu eta jaiengako irrika handirik ez dute agertu, hauek ez direla benetako festak eta. Kontzertu eta gazteentzako ekitaldi gutxi daudela salatzen dute eta gainera jai egunetan goizeko hiruretarako taberna guztiak itxiko dituztenez nahiko haserre daude.

Beste batzuen iritziak gazteek izan dute aukerarik bileretara joan eta jaien egitaraua prestatzen laguntzeko, baina ez dira agertu. Gazte batek esan digunez, Udalak diru apur bat besterik ez du gazteen nahietarako erabiltzen. Orain bospasei urte



Zumaiako alde zaharra.

JAVIER CARBALLO

**Ez dute Santelmoek duten tradiziozko eta bestetik uda partean ospatzen direnez kanpoko jende gehiago etortzen da jaiak izaera herritarra galtzen dute ●**

jende gazteak jaiak antolatzeke bileretara joateari uko egin zion eta bere kontura egin zituen, kalejira, bizikletaz egindako poteo kantaria, xexenak eta beste hainbat ekintza. Ekintza hauek egiteko dirua kalez kale eta tabernaz taberna egindako eskean lortu zuten. Ageri denez, jendeak badaki parte hartzen, baina arrazoi bategatik edo bestegatik ez ditu gogo biziz hartzen jaiak. Udalak egindako antolakuntza eta kaleko ekimena uztartu beharrean daude aurrerantzean itxurazko Sanpedroak antolatzeke, bestela ez dira konforme izango, ez batzuk eta ez besteak.

**Orain bospasei urte jende gazteak jaiak antolatzeke bileretara joateari uko egin zion eta bere kontura egin zituen, kalejira, bizikletaz egindako poteo kantaria ●**

**JAIK ATZO HASITA** Jaiei atzo eman zitzaizkien udal txekoko balkoitik botatuko txupinazoarekin. Ondoren Lizarrako dultzaineroekin ohizko kalejira egin zuten erraldoi eta buruhandiek. Gauean eskola arteko zesta punta txapelketako finalerdiak jokatu ziren eta Agirre Taldeak alaiturik dantzatu ahal izan genuen.

Gaur goizeko 10.00etan prozesioa egingo da eta ondoren Meza Nagusia parrokiari, Pedro abesbatzak 'Tu es Petrus' abestuko du besteak beste. Eguerdian parterako irratizaleek 'Zumaiako I maratoia' hogeitalau orduko ihardunaldian parte har dezakete. Gurrutxaga plazan Zumaiako Musika Bandak kontzertua eskainiko digu.

Arratsaldeko bostetan Odieta pilotalekuan profesionalak binaoka jokatu dute; Alustizak eta Errastik, Salaberria eta Zezeagaren aurka estelarrean eta hauen aurretik Soroa II eta Mendiak, Tolosa III eta Salbidearen aurka. Gauerdiko su festen aurretik Maria eta Joseko aretoan Taun Taun taldeak eskainitako 'Bi kate' txotxongilo emanaldia ikus daiteke. Suak bukatu ondoren Gurrutxaga plazan Udala Musika Bandak dantzarako aukera emango digu eta kalejiran dultzaineroek ere lagunduko diete.

#### Egitaraua

- 10.00etan Prozesioa eta ondoren Meza Nagusia.
- 12.00etan 'Zumaiako I Maratoia' irratizaleentzat.
- 12.30etan Musika Bandaren kontzertu berezia.
- 17.00etan pilotari profesionalak Odieta.
- 19.30etan Goloka, Oilo Oloka kale antzerkia.
- 22.00etan Maria eta Joseko aretoan txotxongiloak.
- 24.00etan Pirotecnia Zaragozanaren su festak.



#### 'Bi kate' antzezlan

##### ZUMAIAN

'Ekaina, antzerki bikaina' zikloaren barruan, 22.00etan Taun Taun taldeak 'Bi kate' izeneko txotxongilo ekitaldia eskainiko du Maria eta Jose ikastetxe aretoan. Giza neurriko txotxongiloek hartuko dute eszenatokia, aitona eta amona baten arteko elkarrizketa mamitsua interpretatzeko. Aitonamonak elkarri beren bizitzaren historia kontatuko diote, inguratzen diren haur eta nagusien gozamenerako. Orain lau urte sortutako Taun Taun taldeak itzuli bat egin du maiatzaren 6tik 18ra, 'Bi kate' txotxongilo ekitaldia erakutsiz,



Leon, Lerida, Huesca eta Zaragozan barrena, Madrilgo Lehen Nazioarteko Txotxongilo Lehiaketan parte hartuz. 'Bi kate' lanarekin interpretaziorik onenaren saria eskuratu du Taun Taun talde bergararrak Madril. Bergarar laukote honek iaz ere eskaini zuen ekitaldi bat Zumaiako Maria eta Joseko aretoan, eta esan digutenez, ikustera jende gutxi joan bazitzaiezen ere, inguratu ziren guztiek oso ongi pasa zuten. Hauxe da Taun Taunek sortu duen hirugarren lana; lehendabizikoa 'Terror bajo los hilos' izan zen Woody Allen-en istorio batzuk oinarritzat hartuz eta bigarrena 'Lam eta Lorea' haurrentzako txotxongilo ikuskizuna.



**BASADI**

harategia

BASADI A-4 ZUMAIAN 861091

**Itzurun**

ATEAK

Itzurun pol., behea 2  
Tfna.: 86.15.65  
Zumaia  
Gipuzkoa

**Egunkaria**

Festa on irakurleoi!!

**Iraultza**

JANTZIDENDA

Juan Belmonte 6 86.22.91

ZUMAIAN

**INPERNUPE ELKARTEA**

jaiak bai, borroka ere bai



**Alkateak zumaiarrei:  
Herritarrok!**

*Alkate izendatu berria naizenez gero, festen egitarau honek ematen didan aukeraz pozik baliatzen naiz, lehenengo aldiz, herritarrengana hurbiltzeko.*

*Egitarau orekatua eta adin guztietarako egokitua egiten saiatu gara, kirolak eta kultur saio ugari barneratuz, bakoitzak gustokoena aukeratu dezan.*

*Honela ba, festa alai eta zoriontsuak opa dizkizuet, baina, aldi berean, adierazi nahi nizuke, egun hauek, edari eta antzeko drogen gehiegikeriarik gabe igarotzea izango litzatekeela nere nahirik handiena.*

*Jai zoriontsuak eta ondo pasa.*